c. Aldi baterako enpresa-elkarteak: kideetako bakoitzak bere gaitasuna, nortasuna, ordezkaritza eta kaudimena egiaztatu behar ditu. Beste agiri batean, berriz, honako hauek adierazi behar dituzte: elkarteko kide bakoitzaren izena eta inguruabarrak, bakoitzak duen partaidetzaren ehunekoa; orobat, kontratuak indarrean dirauen artean Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren aurrean elkartearen ordezkaritza osoa izango duen pertsona izendatu behar dute. Horrez gain, kontratuaren adjudikaziodun izendatuz gero aldi baterako elkartea behar bezala eratzeko konpromisoa adierazi behar dute.

d. Enpresa ez espainiarrak, baina Europar Batasuneko estatu kideetako batekoak badira: enpresak errotuta dauden Estatuaren legediaren arabera dagokien erregistroan izena emanda daudela egiaztatzen duen agiria (Herri

económicamente más ventajosa la aportación de la documentación indicada en los números siguientes que en su caso corresponda, en original o copia que tenga carácter de auténtica conforme a la legislación vigente. El plazo para su presentación será de diez días hábiles a contar desde el siguiente a aquél en que reciba el requerimiento. Las empresas extranjeras presentarán la documentación traducida de forma oficial a castellano o a euskara.

Dicha documentación se presentará en la Fundación Bizkaia Bizkaialde (C/ Alda de Rekalde nº 30-1º, 48009 Bilbao), la cual, a solicitud de la interesada, cotejará los documentos originales de los que se pretenda valer en relación a los expedientes que se tramiten por dicha Fundación.

Documentación a aportar:

1. Documentación acreditativa de la capacidad de obrar según los supuestos que a continuación se detallan:

a. Persona física: DNI o documento fehaciente que haga sus veces de la persona que realice la proposición.

b. Persona jurídica: escritura o documento de constitución, los estatutos o el acto fundacional, en los que consten las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate.

c. Uniones temporales de empresas: cada una de las componentes acreditará su capacidad, personalidad, representación y solvencia, debiendo indicar en documento aparte los nombres y circunstancias de las que la suscriben, el porcentaje de participación de cada una de ellas y designar la persona que durante la vigencia del contrato ha de ostentar la plena representación de todas ante la Fundación Bizkaia Bizkaialde. Asimismo, señalarán el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarias del contrato.

d. Empresas no españolas de Estados miembros de la Unión Europea: inscripción de las empresas en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde están establecidos (Anexo I del Reglamento General de la Ley de Contratos de las

FUNDACIÓN BIZKAIA BIZKAIALDE FUNDAZIOA

Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren I. eranskina), edo **zinpeko aitorpena** edo **ziurtagiria** aurkez dezakete, aplikatzekoak diren Batasuneko xedapenen arabera. Halaber, enpresak kokatuta dauden estatuko legediak eskatzen baldin badu enpresa horiek dagokien zerbitzua emateko baimen berezia behar dutela edo erakunde jakin bateko kide izan behar dutela, orduan, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute.

Administraciones Públicas), o mediante la presentación de una **declaración jurada** o un **certificado** de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación. Asimismo, cuando la legislación del Estado en que se encuentren establecidas estas empresas exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito.

e. Europar Batasuneko kide ez diren estatuetako pertsona fisikoak edo juridikoak: **Txostena**, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Ordezkaritza Iraunkorrak edo enpresaren helbidea dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoak emandakoa. Halaber, aurkezten diren agiriekin batera beste bat ere aurkeztu behar da, eta agiri horren bidez egiaztatu behar da, hain zuzen ere, atzerriko enpresen jatorrizko estatuak onartzen duela Espainiako enpresek delako estatu horretako Administrazioarekiko kontrata-zioetan parte hartzea, funtsean berdintsua den moduan. Arauketa harmonizatuaren pean dauden kontratuetan ez da elkarreki-kotasunari buruzko txostena aurkeztu behar, baldin eta hitzarmena Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa izenpetu duten estatuetako enpresekin sinatzen bada.

e. Personas físicas o jurídicas de Estados no pertenecientes a la Unión Europea: **Informe** de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa. Asimismo, se acompañará a la documentación que presente que el Estado de procedencia de la empresa extranjera admite a su vez la participación de empresas españolas en la contratación con la Administración en forma sustancialmente análoga. En los contratos sujetos a regulación armonizada se prescindirá del informe sobre reciprocidad en relación con las empresas de Estados signatarios del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial de Comercio.

Enpresek **enpresa- edo lanbide-gaikuntza** egiaztatu behar dute, baldin eta gaikuntza hori eskatzen bazaie kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko.

Las empresas deberán acreditar la **habilitación empresarial o profesional** que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación que constituya el objeto del contrato.

2. <u>Ordezkaritza egiaztatzeko agiriak</u>.- Beste baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek ordezkaritza-ahalordea aurkeztu behar dute.

2. <u>Documentos acreditativos de la representación</u>.- Las personas que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otra presentarán poder de representación.

Era berean, ordezkaritzarako ahalorde nahikoa duen pertsonak Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu behar du, edo, bestela, agiri hori ordezkatzen duen beste agiri bat.

Igualmente, la persona con poder bastante a efectos de representación deberá acompañar copia de su Documento Nacional de Identidad o, en su caso, el documento que haga sus veces.

3. <u>Erantzukizunpeko adierazpena</u>, kontratatzeko debekurik ez duela ziurtatzeko. (2. ERANSKINA)

3. <u>Declaración responsable</u> de no estar incursa en prohibición de contratar. (ANEXO 2).

4. <u>Kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo profesionala egiaztatzeko agiriak</u>
Plegu honen karatulako "S" (KAUDIMENA) atalean ezartzen denaren arabera.
Beharrezkoa den kaudimena egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean edo bitartekoetan

4. <u>Documentación acreditativa de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional.</u>
Según lo establecido en el apartado "S" (SOLVENCIA) de la carátula de este pliego.
Para acreditar la solvencia necesaria, la licitadora podrá basarse en la solvencia y medios de otras entidades,

FUNDACIÓN BIZKAIA
BIZKAIALDE FUNDAZIOA

oinarritu daiteke lizitatzailea, erakunde horiekin dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, baldin eta kontratua gauzatzeko bitarteko horiek benetan dituela egiaztatzen badu. Kasu horretan, kaudimen hori ematen duen enpresako zuzendaritza-organoak emandako ziurtagiria aurkeztu behar du, egoera hori egiaztatzeko.

independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tenga con ellas, siempre que demuestre que, para la ejecución del contrato, dispone efectivamente de esos medios. En este caso, deberá aportarse certificado emitido por el órgano de dirección de la empresa que preste la citada solvencia, acreditativo de tal circunstancia.

5.- Atzerriko enpresek, baldin eta kontratua Espainian gauzatuko bada, eta kontratutik zuzenean nahiz zeharka sortutako gorabehera guztietarako, adierazpena aurkeztu behar dute; horren bidez jakinaraziko dute, hain zuzen ere, Espainiako mota guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren menpe jartzen direla, eta adieraziko dute lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioko foruari uko egiten diotela, kasua hori bada.

5.- Las empresas extranjeras, en los casos en que el contrato vaya a ejecutarse en España, deberán presentar una declaración en virtud de la cual se someten a la jurisdicción de los juzgados y tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder al licitante.

6.- Aurreko dokumentazioaz gainera, honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu ekonomikoki eskaintza onuragarriena egin duen **enpresa lizitatzaileak:**

a) Zerga betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzeko, foru ogasunek eta / edo hala denean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako ziurtagiria. Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, enpresa parte-hartzaile bakoitzarena aurkeztuko da.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri positiboa edo, bestela, dagokion mutualitateko alta. Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, enpresa parte-hartzaile bakoitzarena aurkeztuko da.

c) Ekonomi Jardueren gaineko Zergari dagokion uneko ekitaldiko alta-agiria edo azken ordainagiria, eta, hori osatzeko, aipatu zergan baja emanda ez dagoela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena. (6. ERANSKINA). Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, zerga horren matrikulan baja eman ez duela egiaztatzeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du eta adierazi behar du zein salbuespen kasutan dagoen. (6. ERANSKINA). Enpresa lizitatzailea aldi baterako enpresa-elkartea bada, enpresa parte-hartzaile bakoitzarena aurkeztuko da.

d) Hala behar denean, SPKLaren 64. artikuluaren arabera kontratua gauzatzeko erabili edo atxikiko dituen bitartekoak benetan dituela egiaztatzen duten agiriak, kontratazio organoak halakorik eskatu badio.

6.- Además de la documentación anterior, **la empresa licitadora** que ha presentado la oferta económicamente más ventajosa deberá aportar:

a) Certificación positiva expedida por la/s Hacienda/s Foral/es y/o, en su caso, por la Agencia Estatal de la Administración Tributaria acreditativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias, que en el caso de que la empresa licitadora sea una unión temporal de empresas, se aportará la relativa a cada empresa participante en la misma.

b) Certificación positiva acreditativa de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social o, en su caso, el alta en la Mutua correspondiente, que en el caso de que la empresa licitadora sea una unión temporal de empresas, se aportará la relativa a cada empresa participante en la misma.

c) Alta referida al ejercicio corriente o el último recibo del Impuesto sobre Actividades Económicas, completado con una declaración responsable de no haberse dado de baja en el citado impuesto. (ANEXO 6). En caso de estar exenta de este impuesto presentará declaración responsable de no haberse dado de baja en el citado impuesto y señalará el supuesto de exención. (ANEXO 6). En el caso de que la empresa licitadora sea una unión temporal de empresas, se aportará la relativa a cada empresa participante en la misma.

d) En su caso, documentación acreditativa de la efectiva disposición de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 64 del TRLCSP y que le reclame el órgano de contratación.

e) Behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duten agiriak, halakorik eratu behar bada. Aldi baterako enpresa-elkarteak direnean, enpresa parte-hartzaileen sozietate-izenak eta IFZ zenbakiak zehaztu behar dira. Berme hori enpresa parte-hartzaile batek edo batzuek era dezakete, betiere berme horiekin guztiekin bermetan eskatzen den kopurua lortzen bada eta berme solidarioa ematen bazaie aldi baterako enpresa-elkartea eratzen duten guztiei. (4. ERANSKINA, 5 edo eskudiruz diru-sartzea egitea, Administrazio Klausula Berezien Pleguan jasotakoaren arabera).

e) Documentación que acredite la constitución de la garantía definitiva, en su caso. En el caso de las uniones temporales de empresas deberán especificarse las razones sociales y NIF de las empresas participantes. Asimismo, las garantías podrán constituirse por una o varias de las empresas participantes, siempre que en conjunto se alcance la cuantía requerida y garantice solidariamente a todas las integrantes de la unión temporal. (ANEXO 4, 5 ó ingreso en metálico según lo recogido en el PCAP).

f) Behin-behineko adjudikazioduna aldi baterako enpresa-elkarte bat bada, elkarte hori eratzeko eskritura publikoa aurkeztu behar du.

f) En el caso de que la empresa licitadora sea una unión temporal de empresas, deberá aportar la escritura pública de formalización de la misma.

a), b), c), d) eta e) ataletan eskatzen den dokumentazioari buruzko errekerimendua behar bezala eta adierazitako epean betetzen ez bada, ulertuko da enpresa lizitatzaileak eskaintza bertan behera utzi duela.

En el caso de no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento relativo a la documentación exigida en los apartados a), b), c), d) y e) en el plazo señalado, se entenderá que la empresa licitadora ha retirado su oferta.

Lizitatzaileen Erregistroak emandako ZIURTAGIRIAren bidez egiaztatzea.- Inguruabar batzuk betetzen direla egiaztatzeko agirien (jarduteko gaitasuna egiaztatzeko agiriak, ordezkaritza, 2. ERANSKINAren araberako erantzukizunpeko adierazpena, kontratisten sailkapena, Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiri positikoak eta 6. ERANSKINAren araberako erantzukizunpeko adierazpena) ordez honako erregistro hauetako edozein ZIURTAGIRI aurkez daiteke:

a) Bizkaiko Lurralde Historikoko Lizitatzaileen Erregistroak emandako ziurtagiria, edo
b) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiria, edo
c) Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialak (hala badagokio) emandako ziurtagiria, edo
d) Sailkapenari buruzko Batasuneko ziurtagiria.

Dagokion erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen ez diren inguruabarrak direla eta, inguruabar horiek frogatzeko eskatzen diren agiriak erantsi behar dira.

Ziurtagiri horrekin batera, betiere, lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du, eta bertan adieraziko du ziurtagirian islatzen diren inguruabarretan ez dela aldaketarik egon. (3. ERANSKINA)

Acreditación mediante CERTIFICADO del Registro de Licitadores.- La acreditación de determinadas circunstancias (documentación acreditativa de la capacidad de obrar, representación, declaración responsable según ANEXO 2, clasificación de contratistas, certificaciones positivas de Hacienda y Seguridad Social, declaración responsable según ANEXO 6) podrá ser sustituida por el CERTIFICADO que expida cualquiera de los registros siguientes:

a) Registro de Licitadores del Territorio Histórico de Bizkaia, o
b) Registro Oficial de Contratistas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o
c) Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado (en su caso), o

d) mediante certificado comunitario de clasificación.

En relación a las circunstancias no recogidas en el certificado que se presente del Registro correspondiente, se acompañará la acreditación documental exigida.

En todo caso la certificación deberá acompañarse de una declaración responsable de la licitadora en la que manifieste que las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no han experimentado variación. (ANEXO 3)

7.8. Enpresa lizitatzailearen ondorengoa izatea

7.8. Sucesión de la empresa licitadora en el

prozeduran:

Prozedura bat izapidetzen den bitartean, baina adjudikazioa burutu baino lehenago, lizitatzaile edo hautagai den enpresa baten nortasun juridikoa azkentzen bada, enpresa horren ondarean bat-egitea, zatiketa edo eskualdaketa gertatu delako, orduan, prozedurako hurrenkeran honako hauek ordezkatuko dute hautagaia den enpresa: sozietate xurgatzaileek, bat-egitetik sortu direnek, zatiketan onuradun izan direnek, edo ondarea edo dagokion jarduera-arloa erosi dutenek. Nolanahi ere, ordezkatuko duten horiek, beti, gaitasuna dela-eta eskatzen diren baldintzak bete behar dituzte, ez dute kontratatzeko debekurik izan behar eta kaudimena dutela egiaztatu behar dute, adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio klausula berezian pleguan eskatutako betekizunen arabera.

procedimiento:

Si durante la tramitación de un procedimiento y antes de la adjudicación se produjese la extinción de la personalidad jurídica de una empresa licitadora o candidata por fusión, escisión o por la transmisión de su patrimonio empresarial, le sucederá en su posición en el procedimiento las sociedades absorbentes, las resultantes de la fusión, las beneficiarias de la escisión o las adquirentes del patrimonio o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibiciones de contratar y acredite su solvencia en las condiciones exigidas en este pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación.

## 8. KONTRATUA ADJUDIKATU, FORMALIZATU ETA HAREN PUBLIZITATEA EGITEA.

8.1. **Ukoa eta atzera egitea.**- Bizkaia Bizkaialde Fundazioak kontratua egiteari **uko egiteari** eta prozeduran **atzera egiteari** dagokionez, SPKLTBaren 155. artikuluan ezartzen dena bete beharko da.

Kontratazio organoari dagokio, interes publikoko arrazoiak direla-eta, eta behar bezala justifikatuta, kontratu bat adjudikatu aurretik hura egiteari uko egitea. Adjudikazioa egin aurretik ere atzera egin dezake adjudikazioan, baldin eta kontratua prestatzeko arauetan edo adjudikazio prozedura arautzekoetan konpondu ezineko akatsen bat antzematen badu.

Kasu batean zein bestean, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak zehaztuko du lizitazioak enpresa lizitatzaileari eragin dizkion gastuen konpentsazioa; horretarako, aurretik entzunaldia eskainiko zaie lizitatzaileei eta gastuok justifikatu beharko dituzte. Hala ere, konpentsazio horrek ez du inola ere muga hau gaindituko: 300,00 €.

8.2. Adjudikazioa.

8.2.1. **Adjudikazioa.**- Kontratazio organoak egoki irizten dien txosten tekniko guztiak eskatu ondoren, halakorik behar izanez gero, kontratua adjudikatuko dio eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari edo hautagaiari, eta kontratuaren behin betiko baldintzak zehaztu eta ezarriko ditu.

## 8. ADJUDICACIÓN, FORMALIZACIÓN Y PUBLICIDAD DE LA FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.

8.1. **Renuncia y desistimiento.**- En lo relativo a la **renuncia** a la celebración del contrato y **desistimiento** del procedimiento por la Fundación Bizkaia Bizkaialde, se estará a lo dispuesto en el artículo 155 del TRLCSP.

Corresponde al órgano de contratación por razones de interés público debidamente justificadas renunciar a celebrar un contrato antes de la adjudicación. También podrá desistir de la adjudicación antes de la adjudicación cuando se aprecie una infracción no subsanable de las normas de preparación del contrato o de las reguladoras del procedimiento de adjudicación.

En ambos casos, la compensación de los gastos que la licitación haya ocasionado a las empresas licitadoras será fijada por la Fundación Bizkaia Bizkaialde previa audiencia y justificación de aquéllas. Ello no obstante, esta compensación no superará en ningún caso el límite de 300,00 €.

8.2. Adjudicación.

8.2.1. **Adjudicación.**- El órgano de contratación una vez haya solicitado, en su caso, cuantos informes técnicos estime pertinentes, adjudicará el contrato a la empresa licitadora o candidata que haya presentado la oferta que resulte económicamente más ventajosa, concretando y fijando los términos definitivos del

contrato.

**8.2.2. Kontratua adjudikatu gabe uztea.**- Kontratazio organoak ezin du lizitazio bat adjudikatu gabe utzi baldin eta pleguan jasotzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintzarik edo proposamenik badago.

**8.2.2. Declaración de desierta.**- No podrá declararse desierta una licitación cuando exista alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuren en el pliego.

**8.2.3. Adjudikaziorako epea.**- Ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen enpresa lizitatzaileari eskatutako agiriak jasotzen dituen egunaren biharamunetik aurrerako bost egun baliodunen barruan adjudikatu behar du kontratazio organoak kontratua.

**8.2.3. Plazo para adjudicar.**- El órgano de contratación deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la documentación requerida a la empresa licitadora que ha presentado la propuesta económicamente más ventajosa.

**8.2.4. Enpresa lizitatzaileei adjudikazioa jakinaraztea eta hura kontratatzailearen profilean argitaratzea.**- Kontratazio-organoak ebatziko du kontratazioa, arrazoitutako ebazpenaren bidez, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Halaber, kontratatzailean profilean argitaratuko da.

**8.2.4. Notificación de la adjudicación a las empresas licitadoras y su publicación en el perfil de contratante.**- La adjudicación se acordará por el órgano de contratación en resolución motivada y se notificará a las empresas licitadoras. Simultáneamente se publicará en el perfil de contratante.

Jakinarazpena egiteko, jasotzaileak jaso izana egiaztatzeko aukera ematen duen edozein bide erabiliko da. Lehentasunez, posta elektronikoaren bidez egingo da, enpresa lizitatzaileek beren eskaintzak aurkeztean aukeratutako helbide elektronikora.

La notificación se hará por cualquiera de los medios que permiten dejar constancia de su recepción por el destinatario. Preferentemente se efectuará por correo electrónico a la dirección que las empresas licitadoras hubiesen designado al presentar sus proposiciones.

8.2.5. Kontratua formalizatzea.

8.2.5. Formalización del contrato.

Kontratua administrazio-agiriaren bidez formalizatuko da, eta titulu hura nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Dena den, kontratua eskritura publikoan jasotzea eska dezake kontratistak, eta horren ondorioz sortzen diren gastuak haren konturakoak izango dira.

El contrato se formalizará en documento administrativo, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, la contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

Kontratua formalizatzeko epea:

Plazo para la formalización del contrato:

a. Kontratuaren aurka kontratazioaren arloko errekurtso berezia aurkez badaiteke SPKLTBaren 40.1 artikuluaren arabera, formalizazioa ezingo da egin hamabost egun baliodun iragan aurretik, enpresa lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena igortzen zaienetik.

Kontratazio-organoak adjudikaziodunari errekerimendua egingo dio kontratua formaliza dezan, gehienez, bost eguneko epean, errekerimendua egin zaion egunaren biharamunetik Berdin jardungo du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etetea altxatu duenean. Berdin jardungo du errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etetea altxatu duenean.

a. Si el contrato es susceptible de recurso especial en materia de contratación conforme al artículo 40.1 del TRLCSP, la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a las empresas licitadoras.

El órgano de contratación requerirá al adjudicataria para que formalice el contrato en plazo no superior a cinco días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso

hubiera levantado la suspensión.

b. Gainerako kasuetan, kontratuaren formalizazioa egingo da hamabost egun baliodunko epean, enpresa lizitatzaileei adjudikazioaren jakinarazpena jasotzen dutenetik.

b. En los restantes casos, la formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se reciba la notificación de la adjudicación a las empresas licitadoras.

Adjudikaziodunari egozgarriak diren arrazoiak direla-eta kontratua ez bada epe horren barruan formalizatu, kasuan-kasu eskatu den behin betiko bermea bahitze erabaki dezake Bizkaia Bizkaialde Fundazioak.

Cuando por causas imputables a la adjudicataria no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado, la Fundación Bizkaia Bizkaialde podrá acordar la incautación sobre la garantía definitiva del importe de la garantía provisional que, en su caso hubiese exigido.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Bizkaia Bizkaialde Fundazioarei egoztekoak badira, berriz, berandutzeak eragindako kalte-galerengatiko kalte-ordaina emango zaio kontratistari.

Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Fundación Bizkaia Bizkaialde, se indemnizará a la contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.

Ezin da kontratua gauzatzen hasi, aurretik formalizatu ez bada, espedientearen izapidetzea presazkoa edo larrialdikoa denean izan ezik.

No podrá iniciarse la ejecución del contrato sin su previa formalización, excepto cuando la tramitación del expediente sea con carácter de emergencia.

**8.2.6. Kontratuaren formalizazioaren publizitatea-** Kontratuaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren barneko kontratazio jarraibideetan ezartzen denaren arabera.

**8.2.6. Publicidad de la formalización del contrato.-** La formalización del contrato se publicará en el perfil de contratante según se establece en las instrucciones internas de contratación de la Fundación Bizkaia Bizkaialde.

**8.3. Agiri teknikoak itzultzea.-** Adjudikaziodun ez diren enpresa gonbidatuek aurkeztu dituzten agiri teknikoak haien eskura egongo dira jar litezkeen errekurtsoak jartzeko epeak agortzen direnetik aurrera. Dena den, adjudikazioa irmoa den egunetik hiru hilabete pasatu badira, lizitatzaileek aurkeztu dituzten agiri guztiak suntsitzea erabaki dezake Bizkaia Bizkaialde Fundazioak, baldin eta lizitatzaileok ez badituzte agiri horiek eskatu.

**8.3. Devolución de documentación técnica.-** La documentación técnica presentada por la/s empresa/s invitada/s que no hayan resultado adjudicatarias estará a su disposición una vez hayan transcurridos los plazos para la interposición de los recursos correspondientes. No obstante, transcurrido el plazo de tres meses desde la firmeza de la adjudicación, la Fundación Bizkaia Bizkaialde podrá disponer sobre la destrucción de la documentación aportada por quienes hubieren licitado cuando no hayan procedido a su retirada.

## 9. KONTRATUA GAUZATZEA.

## 9. EJECUCIÓN DEL CONTRATO.

**9.1. Kontratua betetzeko betebeharra.-** Kontratistak galdu-gordean jardun beharko du kontratua gauzatzerakoan.

**9.1. Obligación de cumplir el contrato.-** La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la contratista.

Egiten dituen lanen, prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da kontratista, baita kontratua burutzean egindako huts, akats, metodo desegoki edo ondorio ez-zuzenek Bizkaia Bizkaialde Fundarioari zein hirugarrenen sor diezazkieten

La contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Fundación Bizkaia Bizkaialde o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución

ondorioena ere. (305.2. art.)

9.2. Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren eskumenak.- Kontratazio organoak dauzka kontratuak interpretatzeko eskumenak, baita kontratuok betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, kontratuok suntsiaraztea erabakitzeko zein azken horren ondorioak zehazteko ere.

9.3. Epea betetzea eta entregatzeko lekua.

Kontratistak, behartuta dago-eta, kontratua gauzatzeko kontratu-agirian finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian egiteko izendatutako epe partzialak ere bete egin behar ditu.

Kontratista berandutze-egoeran jarri dela jakiteko, Fundazio honek ez dauka aurrez agindeirik egin beharrik.

9.4. Zereginak ez betetzea eta zehapenak

Kontratuaren ondoriozko betebeharrak ez betetzeagatik zigor ekonomikoak ezarriko dira, enpresa adjudikaziodunari entzun ondoren.

Ez betetzeak oso larriak, larriak edo arinak izango dira, larritasunaren, zerbitzuan duten eraginaren eta Bizkaia Bizkaialde Fundazioari edota hirugarrenei eragiten dizkieten kalteen arabera.

Kontratuko baldintzaren bat edo eskainitako hobekuntzaren bat betetzen ez badu, enpresa adjudikaziodunak zehapena jasoko du.

9.4.1. Ez betetze oso larriak:

- Kontratatuariko prestazioak etetea, salbu eta ezinbesteko arrazoiengatik edo Bizkaia Bizkaialde Fundazioak onartutako arrazoi justifikatuengatik egiten denean.
- Kontratu osoa edo zati bat lagatzea, aldez aurretik baimenik eskuratu gabe.
- Enpresa adjudikaziodunari eskatu ahal zaizkion betebeharren ez betetze larria edota errepikatua.
- Arrazaren, sexuaren, erlijioaren, hizkuntzaren edo iritziaren ziozko bereizkeria guztiak.
- Lanetan atzeratuta ibiltzea, horrek Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren irudiari kalte oso larria egiten dionean, eta/edo zerbitzuetan atzeratuta ibiltzea.
- Hiru hutsegite larri egitea.

del contrato. (art. 305.2).

9.2. Prerrogativas de la Fundación Bizkaia Bizkaialde.- El órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta.

9.3. Cumplimiento del plazo y lugar de entrega.

La contratista está obligada a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo en el documento contractual, así como de los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva.

La constitución en mora de la contratista no precisará intimación previa por parte de esta Fundación.

9.4. Incumplimiento de las obligaciones y penalidades

El incumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato dará lugar a la imposición, previa audiencia a la empresa adjudicataria, de penalidades de carácter económico.

Los incumplimientos, atendiendo a su gravedad, trascendencia para el servicio y eventuales perjuicios causados tanto a la Fundación Bizkaia Bizkaialde como a terceras personas, se clasifican en muy graves, graves y leves.

Se sancionará a la empresa adjudicataria en caso de incumplimiento de alguna o varias de las condiciones del contrato o de las mejoras ofertadas:

9.4.1. Incumplimientos muy graves:

- Interrupción de las prestaciones contratadas, salvo causa de fuerza mayor o causa justificada así admitida por la Fundación Bizkaia Bizkaialde.
- La cesión total o parcial del contrato sin la previa autorización.
- El incumplimiento grave y/o reiterado de las obligaciones exigibles a la empresa adjudicataria.
- Toda actuación que suponga discriminación por razón de raza, sexo, religión, lengua u opinión.
- El retraso en la ejecución de los trabajos que suponga un perjuicio muy grave en la imagen de la Fundación Bizkaia Bizkaialde, y/o en la prestación de sus servicios.
- La comisión de tres faltas graves.

9.4.2.- Ez betetze larriak:

- Ekintzaz edo omisioz, kontratuko betebeharrak edo Bizkaia Bizkaialde Fundazioak emandako jarraibide eta aginduak ez betetzea, jokabide hori, bere ondorioei erreparatuta, hutsegite oso larritzat jotzen ez denean.
- Kontratuaren xede diren lanetan atzeratuta ibiltzea.
- Bi hutsegite arin egitea.

9.4.3.- Ez betetze arinak

Enpresa adjudikaziodunari eskatu ahal zaizkion betebeharrak ez betetzea, zabarkeria edo ardura falta barkaezinaz.

9.4.4.- Zehapenak:

Enpresa adjudikaziodunak arau-haustea egiten badu zigorra ezarri ahalko zaio. Hona hemen zenbatekoak:

1) Hutsegite oso larriak: fakturatik dirua kentzea: hileko fakturaren % 50 ez betetze bakoitzeko.

2) Hutsegite larriak: fakturatik dirua kentzea: hileko fakturaren % 25 ez betetze bakoitzeko.

3) Hutsegite arinak: ohartarazpena, edo fakturatik dirua kentzea: hileko fakturaren % 5 ez betetze bakoitzeko.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren Patronatuari edo berak eskuordetzen duen organoari dagokio zigorrak ezartzea kontratua ez betetzeagatik.

Enpresa adjudikaziodunak ez betetze larriak edo oso larriak egiten baditu, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea edo goian azaldutako zigorrak ezartzea.

Zigorrak gauzatzeko, lehentasunez, haien zenbatekoa kenduko da, enpresa adjudikaziodunaren ziurtagirien ordainketetan.

Zigorra jasotzeak ez du enpresa adjudikazioduna salbuetsiko hirugarren pertsonei eta/edo Bizkaia Bizkaialde Fundazioari zerbitzuaren ondorioz eragindako kalte eta galeren erantzukizunetik, eta berak ordaindu beharko ditu kalte-ordainak.

**9.5. Kontratua gauzatzean hirugarrenei eragindako kalte-galerengatiko ordaina.-** SPKLTBaren 214. artikuluan ezartzen dena bete behar da.

9.6. Kontratuaren prezioa:

**9.6.1. Prezio zehatza.-** Kontratuaren prezioa zehatza izango da eta eurotan adieraziko da, eta zehaztu daiteke

9.4.2.- Incumplimientos graves:

- El incumplimiento, por acción u omisión, de las obligaciones derivadas del contrato o de las instrucciones u órdenes dictadas por la Fundación Bizkaia Bizkaialde, que por su trascendencia no merezcan la consideración de falta muy grave.
- El retraso en la ejecución de los trabajos objeto del contrato.
- La comisión de dos faltas leves.

9.4.3.- Incumplimientos leves

La negligencia o descuido inexcusable en el incumplimiento de las obligaciones exigibles a la empresa adjudicataria.

9.4.4.- Penalidades:

La comisión de infracciones por parte de la empresa adjudicataria podrá conllevar la imposición de penalidades por los siguientes importes:

1) Faltas muy graves: deducción económica equivalente al 50% del importe de la factura de un mes por cada incumplimiento.

2) Faltas graves: deducción económica equivalente al 25% del importe de la factura de un mes por cada incumplimiento.

3) Faltas leves: apercibimiento o deducción económica equivalente al 5% del importe de la factura de un mes por cada incumplimiento.

Corresponderá al Patronato de la Fundación Bizkaia Bizkaialde, u órgano en quien delegue la imposición de penalidades por razón de incumplimiento del contrato.

Cuando la empresa adjudicataria hubiese incurrido en incumplimientos graves o muy graves, la Fundación Bizkaia Bizkaialde podrá optar, indistintamente, por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades arriba expuestas.

Los importes de las penalidades se harán efectivos, preferentemente, mediante la deducción de los mismos en los pagos de las certificaciones de la empresa adjudicataria.

Las penalidades no excluyen la obligación de la empresa adjudicataria de responder de los daños y perjuicios que se produzcan a tercera personas y/o a la Fundación Bizkaia Bizkaialde, como consecuencia de la prestación del servicio, siendo de su cargo el pago de las indemnizaciones que por ella se deriven.

**9.5. Indemnización de daños y perjuicios causados a terceros durante la ejecución del contrato.-** Se estará a lo establecido en el artículo 214 del TRLCSP.

9.6. Precio del contrato:

**9.6.1. Precio cierto.-** El precio del contrato será cierto y expresado en euros y podrá formularse en precios

edo prezio unitarioan edo oroharreko prezioan. Kasu batean zein bestean, BEZaren zenbatekoa bereizita adierazi behar da, beste partida batean.

9.6.2. Prezioa ordaintzea.- SPKLTBan eta kontratuan ezarritako baldintzetan egindako prestazioaren ordainketa jasotzeko eskubidea izango du adjudikaziodunak, itundutako prezioaren arabera nolanahi ere.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioa behartuta egongo da prezioa ordaintzera, SPKLTBaren 216. artikuluan eta hari lotutakoetan ezarritakoa betetzeko. Halaber, artikuluok ezartzen dute ordainketan berandutzeari buruzko araubide juridikoa.

9.6.3. Prezioak berrikustea.- Prezioak berrikusiko dira edo plegu honen karatulako "K" (PREZIOAK BERRIKUSTEA) atalean ezartzen denaren arabera, edo kontratuaren agirian ezarritakoaren arabera, edo SPKLren 89. artikuluan eta baterako arautegian ezarritakoaren arabera.

9.6.4. Prezioa aldatzeari buruzko klausulak.- Plegu honen karatulako "U" (BESTE ESPEZIFIKAZIO BATZUK) atalean halakorik ezarri bada aplikatuko dira, eta, horretarako, SPKLTBaren 87.4. artikuluan zehazten diren arauak jarraituko dira.

9.7. Adjudikaziodunaren ezinbesteko betebeharrak

9.7.1. Betebehar orokorrak

